

ZESTOAKO ELIZA BERE LEHEN ^{eta} erlojua



Denbora neurtzeko ohiturak

Betidanik, denboraren neurri naturala egunen joana edo astroen mugimendua izan da. Eguneroko bizitzaren erritmoa eguzkia eta ilargiaren mugimenduak markatzen zuen.

Baina gizarte konplexuagoko harremanek kontrol eta komunikazio modu zehatzagoak eskatzen zituzten. Eta horrela aipa litezke, esate baterako, kanpaiak. Kanpaiak izan dira betidanik eguneko berri garrantzitsuenak jakinarazteko era. Kanpaiak egunsentian, eguerdian eta ilunabarrean jotzen ziren. Hilkanpaiak jotzen ziren haurren bat edo helduren bat hiltzen zenean (gloria joaldia / agonia joaldia); su-kanpaia jotzen zen sute edo beste arrisku baten aurrean. Kanpaien joaldiak, beraz, bere *hizkuntza* jarraitzen zuten. Zestoako elizaren gaur egungo kanpaiak 1737. urtean ipinitakoak dira, Holandatik ekarritakoak dira eta Beduako portuan jasotakoak.

Erlojuak

Gizakia, teknologia menderatzen joan zen neurrian, denbora hobeto neurtzen saiatu zen, horretarako gero eta tresna zehatzagoak sortuz. Engranajedun erlojuak XIII. gizaldiaren amaieran azaldu ziren. Sistema hura ez zegoen eguzkiaren argiari lotuta eta, ondorioz, eguna denbora unitate berdinetan zatitzen "ahalegintzen" zen. Baina, XVI. gizaldia iritsi zen erloju mekanikoak denbora zatitzeko gailuak izan zitueneko. Garai horretan hasi ziren Europako elizak eta udalak erloju horiek dorreetan ipintzen: Lyon (1598), Augsburg (1590), Nuremberg (1509), Praga (1570), Ulm (1530), etab. Burdinaren eraldaketa hain ondo ezagutzen zuten errementariak egiten zituzten erloju horiek.

Euskal Herrian, Marigorta "rejero" edo "erloxero" familia aipatu behar da batez ere. Erlojuez gain, leiho eta ateetako burdin hesiak ere egiten zituzten. Elgoibarko errebelean zuten lantegia. Sei belaunaldi izan ziren familian 1520tik 1650era bitartean. Kristobal de Marigorta izan zen lehenengoa, bere seme Pedrok jarraitu zion eta horren semeak eta hurrengoak. Lekeitio (1536), Bergara (1540), Urretxu (1537-1558), Araotz (1546), Markina (1565), Zestoa (1592), Olaso dorrea (1604) eta beste hainbat tokitako erlojuak ipini eta konpondu zituzten.

Noiz ipini zen lehenengo erlojua Zestoako elizako dorrean?

Ez dakigu ziur baina 1529an azaltzen dira agirietan Domenja de Lili eta Elgoibarko erlojugilearen arteko harremanak. Marigortatarrek inguruko herrietan erlojuak ipini zituztenez, (Lekeitio 1536, Bergara 1540 etab.) pentsatzekoa da Zestoan ere jarri izan zezaketela. Garai hartan, erloju mekaniko bat izatea ohore handia zen herri batentzat eta Zestoa oso ospetsua zen.

Nolanahi ere, 1546n Zestoako elizak su hartu zuen. Etxeak bata bestearen ondoan zeuden, eta batzuk elizaren kontra. Horietako batean sua sortu, eta handik elizako teilatura pasa zen. Hondamen izugarria. Lilitarren kapera salbatu zen bakarrik. Handik aurrera, udal agintariak debekatu egin zuten elizaren kontra etxeak eraikitzea. Sutearen ondoren, eliza handitzeko aprobetxatu zen: lehendabizi dorrea eraiki zen, ondoren eliz ataria eta, bukatzeko, zati horiek aurreko bataiategi edo eliz buruarekin bat egin zuten. Nahiko eraiketa bitxia izan zen, zeren, ohiko eraiketak eliz burutik hasi eta luzatuaz, kanpandorreakin bukatzen baitziren.



Zestoako elizaren dorrea ez zen orain bezalakoa: hasiera batean, teilaz estalitako egurrezko egitura zuen goialdean. Dorrearen altuera elizarena baino baxuagoa zen. Hori zela eta, kanpaihotsak ez ziren oso ondo entzuten, harresien kanpotik bizi zirenentzat behintzat. Hori horrela izanik, 1735ean altxatu egin zen kanpandorrea.



Marigorta Zestoan: 1592ko urria

1592. urteko urriaren 28an, Pedro de Marigorta Zestoara etorri zen, lehenengo erloju zaharra konpontzera (horrela ikusten da eliza erre baino lehenago beste erloju bat bazela). Agiriak esaten duenez, tratuan "Joan de Olascoaga, teniente de alcalde de la dicha villa i Gracian de Egaña, fiel síndico procurador" ibili ziren, besteak beste.

Pedro de Marigortak bere gain hartu zuen erlojuaren konponketa eta sei urtean onik mantentzea. Bere per-

tsona eta ondarea jartzen ditu tratua garantia gisa. Kontratua sinatu ondoren, bederatzi dukat eta zazpi erreal jasotzen ditu. Erlojuaren harriak hobeto finkatzeko bi eraztun bidaltzeko hitz ematen du. Beste lan bat ere egiten du, hala nola, ostiak egiteko tresnak garbitzea ("fierros con que se azen las hostias").

Udalak bere gain hartzen du erlojuaren harriak igotzea "para que el reloj no ande errado". Erlojuak arazorik izanez gero, berehala Pedro de Marigortari pasa behar zitzaion abisua. Marigorta erloju konpontzera etortzen zenean, udalaren kontu izaten ziren beraren eta berarekin zetorren ofizialaren otorduak, baita bere lanerako sutegi bat eta beharrezko ikatza eskuratzea ere.

1600. urteko uztailearen 3an, berriro etorri zen Zestoara Pedro de Marigorta. Egin zuten tratua, sei dukat jaso zituen, eta bere gain hartu zuen erlojuaren mantenua ("tener en pie, bien andante y corriente el dicho reloj en seis años"). Erlojua hondatzen bazen ("se descalabre"), udalak bilatu behar zuen norbait erlojuaren harriak gora igotzeko. Oraingoan ere, aurrekoan bezala, sutegia eta ikatza udalaren kontu.

Gaur egun, lehenengo erloju zahar horren arrastorik ez da gelditzen; agian, erlojuari eusten zion dorre barruko egurrezko egitura. Baina dorrea hor dago bere lekuan, arro askoa, Zestoako bizitzaren egunak eta orduak bost gizaldiz ikusi ondoren.


Mekanika apur bat

Garai hartako erloju haiek bere lekutik eraitsi zitezkeen. Goian eskitako egitura bertikal batean muntatuta jarri ohi ziren. Erloju horiek ez zuten koadranterik edota orratzik: alegia, kanpotik ez zen ezer ikusten, entzuteko sistema zuen barririk. Bere oinarria, pisu batek eragindako engranajez osatutako mekanismoan datza (indar eragilea) eta biraketa abiadura erreguladoren kontrolatua du (ihesa). Erabilitasun autonomia txikia zuten eta, ondorioz, arduradunak egunero-egunero igo behar zituen pisuak.

Erloju horren kanpaiak dangateko bakarra jotzen zuen, ordu bat izan bestea izan. Jendeak beti dangateko bakarra entzuten zuen eta, beraz, ezinezkoa zuten jakitea, adibidez, 10ak edo 11ak arteko aldea.

Erlojugintza mekanikoa oso ahu-la izan zen XVII. gizaldiaren amaiera arte, batez ere, zehaztasun edo doitasun gutxi zutelako. Gero, ordea, penduluaren aurkikuntzak aurrerapauso handia ekarri zuen denboraren neurketan. Christian Huygens (1629-1695) suitzar matematikari jakintsuak egin zuen, 1656. urtean, lehen penduludun erlojua.

Idea bat egiteko, XIV. gizaldian, erloju batek 10 minutuko okerra ateratzen zuen ordubetean. XVIII. gizaldiaren erdialdean, berriaz, 5 minutuko okerra. Gaur egun, erloju atomikoei esker, gehinez segundo bat okertzen da... hiru miloi urtean!



Gure bizitza kronometratuta daukagu. Erlojuak markatzen dizkigu hitzorduak, eskolarako, lanerako, sendagilearentzat, maitasunarentzat... Erlojuak markatzen du denbora. Baina zer da denbora? Badakigu jaiotzatik hasten dela gure bizitza kontrolatzen, eta gurekin jarraitzen duela bizitza dugun bitartean.